

# Getxo >MEETING<



## **Maiatzaren 27an Sare sozialetan argitaratzea, bai. Baina, zer?**

Sare sozialetan argitaratu beharrekoari buruzko azken saioan landutako gaiak gogora ekarrita, aintzat har itzazu kontzeptu hauek:

- Sare sozial bakoitzak bere estiloa dauka. Egokitu hizkera entzuten zaituen hartzailearen arabera.
- Ziurtatu erabiltzen ari zaren sare sozial horrek bilatzen duzun jende mota erakartzen duela.
- Ez kontatu gauza bat baino gehiago post batean.
- Gauza zehatzak kontatzeak mezua hobeto ulertzen laguntzen du.
- Oreka bilatu. Inork ez du gustuko norbait zerbait saltzen ibiltzea une-oro. Baina enpresa bat baldin bazara, zu kontratatu zaitzaketela igarri behar dute hartzaileek.
- Xehetasun txikiek gauza handiak kontatzea ahalbidetzen dute.
- Ez izan buruan zure produktua, izan buruan zure hartzaileak eta horiek zer jakin behar duten.

Aipatu dugun gakoetako bat da zure zerbitzuak edo produktuak kontsumitu izanak eragiten dituen emozioen zerrendan zentratzea. Hausnartu horiei buruz. Izenda itzazu.

Gero, zehaztu post bat edo gehiago emozio mota horretarako. Hala, zer argitaratu



pentatu beharrea, hori nola kontatu ere prestatuko duzu.

Lasaitasuna, ziurtasuna, ilusioa, arindua, alaitasuna, itxaropena, harrotasuna... emozio horiek definitzean transmititu nahi duzun hori izendatzen lagunduko dizu. Eta, gainera, idaztea gutxiago kostatuko zaizu. Izan ere, zure baitan emozio horrekin harremanetan egongo zara, eta guztia errazago izango da.

Informazio gehiago behar baduzu edo honekin lotutako gaietan prestakuntza jaso nahi baduzu, jar zaitez Getxolanekin harremanetan.